

Euskal Unibertsitatea, UEUren 40. urteurrenetik begiratuta

Martin Orbe Monasterio
Eibar, 2012ko urriaren 18an

Ez da ohikoa ekimen baten 40. urteurrena erreferentziatzat hartzea nahiz balantzeak egiteko nahiz aurrerantzerako ibilbidea birpentsatzeko. Halere, UEUK gogoeta, ala behar bada, aldarrikapena egitea erabaki du urtemuga horretan. Horren arrazoi bakarra ez, baina bai nagusia, kulturgintzako ekimenetan horrelakorik gertatzea atzerapauso tamalgarria den arren, diru-laguntza publikoen murrizketa salatzea izan da gehienbat. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren laguntza izenduna kendu zaio aurten UEUri, eta beste zenbait diru-laguntza murriztu. Horregatik emaitzak aurkezteko zein ospakizunak egiteko ohikoak diren hogeita bost, berrogeita hamar, hirurogeita hamabost ... bezalako urteurrenak albo batera utzita, berrogeigarren urteurrenari heldu beharra.

Egoera honi arreta jartzeko asmoz antolatu zen, uztailaren 5ean, Baionako Euskal Museoan, burutu zen ekitaldia eta, uste dudanez, haren bide bertsutik edo pentsatuta dago datorren ikasturteko hasiera ekitaldi hau.

Orain 39 urte, Donibane Lohizunen, abiatu zen UEU. Euskal Unibertsitatearen bultzatzaile izatea zuen helburu eta aldarrikari hutsa baino azpiegitura sortzaile izatea hobetsi zuen.

Urte hauetako ibilbidearen puntu batzuk azaltzea eta Euskal Unibertsitatearen erreibindikazioa, beste behin, plazaratzea izango lirateke hitzaldi honen xedea.

UEU: 40 urteurrenaren atarian

Unibertsitatea ukatu egin zaio historikoki Euskal Herriari, eta badakigu benetakoa Euskal Unibertsitatea eman ez zaigula emango; guk geuk prestatu eta eskuratu beharko dugu.

Erostatetik haratago, Baionako Hirugarren Euskal Astearen (1972ko iraila) amaierako mahai-inguruan ea katalanek, 1969an, Pradan, edo okzitaniarrek, 1972an, sortutako Udako Unibertsitateen eredu jarraitu ahal zitekeen Euskal Herrian, eztabaidatu zen; ea posible litzatekeen Euskal Herriko Unibertsitatea

sortzea. Hitzaldien amaieran sortutako solasaldian erabateko adostasuna azaldu zen Udako Euskal Unibertsitatea antolatu beharraren inguruan, eta bertan zeuden zenbait irakaslek prestatzeko ardura hartu zuten, IKAS elkartearen babesean. Urte horretan hasi zuten kortsikarrek ere beraien UE (Universit  d'Estade).

Unibertsitaterik ezak sorrarazitako frustrazioak eta tarteka-tarteka unibertsitatearen ametsa, gogoia eta asmoa berpiztean berrindartu izan ohi den eskaerak, hirurogeita hamargarreneko hamarkadan gertatu zen bezalaxe, ahalbidetu zuten Udako Euskal Unibertsitatearen ekimena abian jartzea.

Hogeita hemeretzi urte hauetako ibilbidean UEUK Euskal Unibertsitateranzko bidean egin dituen ahalegin eta aurrerapenen artean, hauexek azpimarratuko nituzke.

A - ATZERANZKO BEGIRADA

1. Euskal Unibertsitatearen aldarria

Euskal aldizkari batean idatzitako «bazuen, behar du, zor zaio» esaldia bere egin zuen UEUK.

Uztaritzen burututako hirugarren ekitaldiaren azkenean onartutako Agirian honela jasotzen zen eskaera: «Euskal Unibertsitate nazionala inoiz baino gehiago, gaur egun ari da beharizan gogor bilakatzen gure herrian. Euskal Unibertsitatearen plangintza orokor baten behar gorria dugu». Eta beste hau: «UEUri dagokio Euskal Unibertsitatearen proiektua finkatzeko oinarriak zehaztea, baita bere jarduerarekin aldarrikapen horren erreferentzia izatea ere».

Eskari hau eta UEUren egitekoa honela jaso zuen, 1975. urtean, *Zeruko Argian* idatzitako artikulua, hirugarren ekitaldian izandako zenbait irakasleren kale egitearen kezka erantzun nahian edo: «U.E.U.ren xedeak ez luke izan behar jende asko biltzea, bere esperientziaz eta ekintzaz bide bat urratuz joatea baizik».

UEUK bere lehen pausuak eman ahala jabetu ziren bultzatzaileek helburuaren zailtasunaz. Hirugarren ekitaldian gertatu zen irakasleen desmobilizazioaz oharturik, gogoia hau egitera eraman zituen: «Guztiak jabetu (bait) dira, Euskal Unibertsitate berri, askatzaile eta herrikoia ezin egiten ahal dela gauetik goizera, pausuka pausuka eta urratsez urrats baizik».

Bestalde, argitu behar da euskal kulturgintzako esparru askotan bizi-bizi zegoen erreibindikazioaren katalizatzaile izan zela UEUren aldarrikapena eta ez zela izan eskaera hori plazaratu zuen bakarra. Francoren heriotzak, beste aldarrikapen askoren artean, Euskal Unibertsitatearena lehen lerrora ekarri zuen. 1976-77 urteetan batzar, idazlan, liburu eta bilera asko burutu ziren horri buruz. Hego Euskal Herriko lau lurraldeak batuko zituen Euskal Unibertsitate barrutiaren aldeko kanpaina indartsua hasi zen. Eduardo Txillidak diseinatutako *euskal unibertsitatea bai, bai - Si, si, universidad vasca* eranskailua abiada handian zabaldu zen euskal lurraldeetan. *Zeruko Argia* aldizkariaren kalkuluen arabera hamabost urtetik hogeita bost urtera arteko gazteen % 75ek pegatina paparrean edo besoan zeraman.

Kanpaina guztiak gorabehera eta eskaerak eskaera, sortu berria zen Legebiltzarkideen Batzarrarena tarteko, Espainiako Gobernuak kaleratutako dekretuaren ondorioz, barruti unibertsitarioa birrantolatzean, Arabako eta Gipuzkoako herrialdeak Bilboko Unibertsitateari lotu zitzaizkion eta Nafarroa kanpoan geratu zen.

2. Euskal Unibertsitatearen ereduak

Koldo Mitxelenak ez zuen gogoko «Euskal Unibertsitate»aren lema, «expresión ambigua si las hay», haren kexua. «Bistan da, Unibertsitate eskea gurean nabarmendu zenez gero ez gabiltzala guztiok gauza bat beraren bila», zioen. Konstatazio hau onartu beharra dago eta UEU saiatu izan da Euskal Unibertsitatearen ereduaren definizioa zehazten.

Gaur arteko unibertsitate-historian emandako urratsak eskema batera bilduz, honela sailkatzen ditu Paulo Agirrebaltzategik izandako unibertsitateak eta egindako saiakerak:

- *Euskal Herrirako Unibertsitatea*. Tankera horretakoak lirateke Oñatiko Unibertsitatea (1540-1901), Iratxekoa (1597-1824) eta Iruñeko Santiagorena (1621-1771).
- *Euskal Herriko Unibertsitatea*. Bergarako Real Seminario zelakoak (1776-1892) eta Nafarroak prestatutako *Universidad Vasco-navarra* (1866) izatekoa zenaren proiektuak ditugu honelako unibertsitatearen eredu.
- *Euskal Herriaren Unibertsitatea*. 1918an sortu zen Eusko Ikaskuntzaren asmorik nagusia, lehen Kongresutik, Euskal Unibertsitatearena izan zen: «Universidad Vasca» deitzen da. Bigarren Kongresuaren konklusio bezala onartzen da «Universidad vasca» delakoak «órgano de nuestra cultura y progreso intelectual» izan behar zuela. Gerora, Euskal Gobernu autonomoak gauzatu zituen, neurri batean, Eusko Ikaskuntzaren asmoak.
- *Euskal Unibertsitatea*. Horixe UEUK aldarrikatzen duena. Unibertsitate horren abiaburua eta helburua honela zehazten ditu Paulo Agirrebaltzategik berak. «Abiaburuari dagokionez, Euskal Unibertsitatea gaurko Erdal Unibertsitatearen ukapena da. Helburuari begira, Euskal Unibertsitatea ez da utopia eta amets hutsa izango horretarako oinarriak eta baldintzak gertagarriak baldin badira eta hartarako bidea irekigarria baldin bada».

Hauexek lirateke, bada, Euskal Unibertsitatearen berezitasun nagusiak:

- *Euskalduna*. Euskal Herritik sortua izan behar du Euskal Unibertsitateak; bertako kultur dinamikaren fruitu bezala.

Euskal Unibertsitatearen eraketak eta kudeakuntzak Euskal Herriaren boterearen eskuetan egon behar du. Herri batek ezertan behar baldin badu bere autonomia eta burujabetasun sakonena kulturaren alorrean izan behar du.

Euskal Unibertsitateak Herri honen dinamika ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalari erantzun behar dio. Dinamika hori aztertu behar du, herri honen arazoei erantzuteko eta aurrerapena argitzeko eta bizkortzeko.

Euskal Unibertsitateak, azkenik, euskarazko unibertsitatea adierazten du. Euskarak oraindik orain pairatzen duen egoera kontutan hartuta, egoera hori gainditzeko, jarrera berreskuragarriaz planteatu eta ekin behar zaio euskararen arazoari. Horrela, bada, Euskal Unibertsitateak euskalduna izan behar du osoki, Euskal Herriak euskalduna izan behar duelako.

Gaurko Euskal Herriak ez dauka euskaldun irauterik, bere hizkuntza unibertsitatera eramaten ez baldin badu; eta euskara hizkuntza nagusi eta oinarrizkotzat jartzen baldin ez bada, inguruko erdarek ito egingo dute.

Euskal Herrian mintzatzen diren hiru hizkuntzen (euskara, gaztelera eta frantsesa) egungo egoera kontutan hartuta, gaztelera eta frantsesa unibertsitatea eta jendartea euskalduntzeko tresna bezala baliatu behar dira. Helburu hori lortuz gero, gaztelera eta frantsesa ikasgai izango dira, betiere euskararen laguntzaile gisa.

Herritarra. Unibertsitate herritarra aldarrikatzean, unibertsitate ez elitista eta ez aristokratikoa esan nahi da. Kulturak sarritan eta luzaroan izan du jite elitista. Baina kultura herriaren dohaina da, herri bakoitzaren bizimolde berezi bezala. Eta, beraz, edozein herritarrena da herriaren kultura.

Horrela, bada, unibertsitate herritarra ezin da klasista izan. Izan ere, klase gainhartzailerik edo dominanteak bere botere ekonomiko, politiko eta sozialaren euskarritzat hartzen eta erabiltzen du kultura. Unibertsitate herritarrek, aldiz, klase herritarren, hau da, botererik ez duten klaseen askatzaile izan behar du, horien askatasun bidez eta tresna; unibertsitatearen bidez herritarrek beraiena duten kultura, berriz ere beren eskuetartzeko tresna izan behar du unibertsitateak.

Euskal kultura ezer baldin bada, herritarra dela esan behar. Euskal Herriko klase agintariek eta gainhartzailerik erdal kulturaz baliatu izan dira, euskal kultura zapaltzeko. Klase herritarrek bakarrik salbatuko dute, bada, euskal kultura, beren nortasuna baieztatzeko eta beren burruka aurrera eramateko bidez bezala erabiliz.

Horrenbestez, Euskal Unibertsitateak herri honen tradizio eta kreazio, egoera eta dinamika kulturazkoari erantzun behar dio; horren erdian kokatua behar du izan.

Finean, unibertsitate herritarra, herri osoaren zerbitzurakoa izanik, publikoa izan behar, benetan publikoa.

Nazionala. Unibertsitate nazionala diogunean, Euskal Herri osoaren unibertsitatea esan nahi dugu. Geografiaren aldetik, zazpi probintziak bildu ez ezik, kultur politikaren aldetik, Iparralde eta Hegoaldearentzat bat bakarra eskatzen du Euskal Unibertsitate Nazionalak, alderdi biek osatzen baitute euskal nazioa.

Bestalde, Euskal Unibertsitate Nazionalak unibertsitate «estatal»aren alderantzizko zerbait adierazten du; hau da, estatu- aparatuen zerbitzuan eta herriaren gainetikako gainegitura gertatu ohi den unibertsitatearen ordez, herriaren sustrai etnikoari loturik eta horren kultur bizitza eta dinamika osoari egokiturik, hortik edango duen eta hori zientziaren bitartez eta mailan aztertzen eta argitzen saiatuko den unibertsitatea adierazten du Euskal Unibertsitate Nazionalak.

Azkenik, Euskal Herri osoa batzen duen hizkuntza euskara izanik, Euskal Unibertsitate Nazionala batuko duena ere euskara izango da.

Baina oso gogoan eduki behar da definitutako unibertsitate horretara iristeko, baldintza sozioekonomiko, politiko eta kulturazkoak bideratu eta egokitu behar direla.

Baldintza sozioekonomikoei dagokienez, ekonomia Euskal Herriaren eta klase herritarren eskuetan egotea eskatzen du; eta baita ere, lanaren antolaketa berria, eskulanaren eta burulanaren arteko etena gainditzeko. Politikoetan, Euskal Herriaren birbaterakuntza, hegoalde eta iparralde, eta bere burujabetasuna beharko dira.

Unibertsitateaz aritzean, logikoa da kultur esparrua izatea gehien bideratu eta landu beharrekoa. Horrela, bada, Ikastolak indartu behar dira eta berdin D ereduko eskola publikoa, oinarriko eta erdiko iraskuntza osoan, ofizialean eta pribatuan, euskara hizkuntza nagusia izan dadin arte; alfabetatzea herri osora, eta bereziki langileetara, zabaldu eta finkatu behar da; komunikabideak, guztiak euskaldundu behar dira; euskara ofizialdu behar da, Euskal Herri osoaren hizkuntza nazional eta nagusi bezala; liburugintza indartu eta hedatu egin behar da, Euskal Unibertsitatearen oinarriko biblioteka sortzeko.

Euskal Unibertsitatearen eredia helmugatzat jarrita, helburu hori lortzeko oinarriak eta baldintzak finkatzean eta bideak hobestean sortzen dira jarrera ezberdinak. Indarrak batu ezina, honetan ere arazo. Joxe Azurmendik bere-berea duen zorrotzasunez egiten zuen oharra: «Asmo batek gidatu behar gintuzke: nolabait elkartzerik dagoen guztiekin elkar hartzea, gauza guztietan berdin pentsatzen ez badugu ere. Hortarako ez dago diferentziak eta eztabaidak lurperatu beharrik».

Euskal Unibertsitatea erdiesteko bide eta bitartekoei dagokienez, gauzak asko sinplifikatuta eta, ñabardurak ñabardura, bi izan ziren UEUren sorrera urte haietan eztabaidatu ziren jarrerak.

Lehenengoaren arabera, irakaskuntz sistemaren gailurrean gertatzen da unibertsitatea, sistema osoa eratzeke, zuzentzeko eta gidatzeko. Sistema hori litzateke Euskal Unibertsitatearen ernamuina. Koldo Mitxelena zen bide honen defendatzaile nagusienetako bat. Honela azaltzen zuen berak bide hori: «Euskal Herriko lurrean ditugun eta ditukegun unibertsitate hazien multzoa, laster ezinbestean ugaritu beharko duguna. Eginda eta osotzeko dagoen erakunde hau gure eskuetan hartuz gero, Euskal Unibertsitatea genuke beronen mamia behintzat. “Y esto desde este mismo momento sin esperar a regímenes especiales, conciertos, fueros, autonomías o autodeterminaciones”.

Halere, Mitxelenaren iritziz, Euskal Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea ez ziren gauza bera, baina ez zeuden elkarren aurka, eta «ez genuke inolaz ere deus egin behar elkarren osagarri liratekeenak elkarren etsai tankeran ager daitezen».

Egia da Euskal Herrian lekuriko unibertsitate eta fakultateak kontutan ukan beharko direla Euskal Unibertsitatea eratzean, baina horiek geure esku izatea ezin

daiteke esan aski denik Euskal Unibertsitatea badugula esateko. Izan ere, egitura horretatik sortuko ote da Euskal Unibertsitatea? Erakunde eta egitura hauek euskal unibertsitate-barruti batean biltzea eta «geure» eskuetan hartzea aski izango ote da, benetako Euskal Unibertsitatea ukan dezagun?

Beste bat zen UEUK markatzen zuen bidea, proposatzen zuen unibertsitate ereduari egokitzen zitzaiona izan ere. Unibertsitate berri baten oinarri gisa eta oraingoaren alternatiba moduan ulertzen du bere burua Udako Euskal Unibertsitateak. Euskal kultur ekimen eta erakundeekin elkarlanean, politikaren, gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren aldetik diren eta areagotu beharko diren baldintzen arabera, dinamika herritarrak bidea urratuz lortu beharko da Euskal Unibertsitatea.

Ikaragarria da, aitortu beharra dago, egiteko dagoen lana eta eraman beharreko burruka. Zorionez, herriak ezarria du bere dinamika eta dinamika horren zuhurtziaren eta indarraren arabera bideratuko da, izatekotan, Euskal Unibertsitatearen egitasmoa.

3. Azpiegitura sortzailer

Euskal Unibertsitatearen aldarrikapena ozenki plazaratu eta gero eta unibertsitate horren ereduaren lerro nagusiak sailkatu ondoren, lanean jartzea zen erronka, azpiegitura sortuz joan zedin; langintza horretan, ezin ukatu, jarduera akademikoa bideratzea dela zutabe nagusia eta horretan murgildu zen, apalki baina buru-belarri, UEU. Alor honetan azpialat hauek azpimarratu beharrekoak:

3.1. Euskara lantzea

Gaur egun bitxia dirudien arren, jarduera unibertsitariorako euskararen aldeko apustu egitea erabaki garrantzitsua izan zen garai haretan. Baionako Euskal Asteetatik Udako Euskal Unibertsiterako trantsizioan, beste alternatibarik gabeko jokabidetzat egin zen euskararen aldeko hautua. Gogo betegarria benetan zer nolako xalotasunez gogoratu zuen Jean Haritxelarrek kontu hori Baionako Museoa uztaillaren 5ean egindako ekitaldian: Lehenengo ikastaroak Donibane Lohizunen antolatu ziren eta han 90 ikasle eta 20 irakasle inguru elkartu zirela gogoratu zuen Haritxelarrek, denak euskara hutsez jarduten. «Gure hizkuntzan geografia, matematika, literatura eta beste hainbat eta hainbat zientzia alor ikasten eta hausnartzen. Klaseak eman behar zirela eta euskaraz bakarrik, hori zen gure xedea. Horrela, bada, bertaratuek euskara aberasteko aukera izan zuten: batetik goi-mailako gaiet bere mintzaira plegatuz, bestetik non-nahiko euskaldunak euskalki ezberdinetan trebatuz».

UEUren hastapenetatik tinkoa izan zen euskararen aldeko apustua. 1976ko egitaraua azaltzean, honako hau azpimarratu zuten Jazinto Iturbe eta Imanol Tapiak: «Bi dira UEUren helburuak: euskaraz sekula entzun ez diren gaiak euskaraz entzutea eta gai batean lanean ari diren euskaldunak batzea eta elkartzea». EHUK 1981-82 ikasturtearen bukaeran Donostian antolatu zituen Udako Ikastaroekin alderatuta, hauxe litzateke, Luis Mari Bandresen esanetan, euskarari dagokionez, UEU eta Udako Ikastaroen arteko desberdintasuna: «UEUren helburua euskara bera da, euskara gaitzea hizkuntza moderno bat izan

dadin, Donostian, aldiz, hizkuntza tresna da, ezagutza zientifikoa zabaltzeko, beste hizkuntzen parean».

Bestalde, UEUren laugarren ekitaldiko sarrera hitzaldian Haritzelarrek azpimarratu zuenez, Baionako Euskal Asteek eta, aldi berean, UEUk bazter guztietako euskaldunak elkartu zituenez, euskalkien arteko diferentziak azaleratu zituen eta, ondorioz, euskararen eta euskaldunen batasunera jo beharra agerian geratu zen UEUren aurreneko ekitaldian.

UEU euskaldun berri askorentzako euskaltegi berezia ere izan zen eta horren ordainez «euskara aseptiko, kolore, zapore eta usai jakinik gabeko bat nagusitzen zen jende piloaren durundian, euskaldun berrien euskara bereziki bilbainoan», *Egin* egunkariko kazetariaren hitzetan.

Halarik ere, amaren titiarekin batera euskara jasotzeko zoria izan nuenez gero, nik neuk behinik behin, nire aitortza eta begirunea adierazten diet konbentzimenduz eta ahalegin pertsonalez euskaldundu diren guztiei. Euskara erabili ahala egokitu eta gozotuko dute doinua.

3.2. Irakasleak trebatzeko gune

Izen handiko maisuak izan dira irakasle UEUko ikastaroetan. Luze joko luke guztien izenak aipatzeak; batzuk aipatzekotan, Jose Migel Barandiaran, Carlos Santamaría, Koldo Mitxelena, Luis Villasante, Manuel Lekuona, Jesus Altuna, Jean Haritschelhar, Piarres Xarritton, Pierre Narbaitz, Xabier Arzallus, Ramontxu Kamblong, Jose Luis Alvarez Enparanza «Txillardegi», Jose Maria Satrustegi... edadetuenen artean. Hurrengo belaunaldikoak lirateke Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti, Klaude Harluxet, Daniel Landart, Edorta Kortadi, Gurutz Ansola, Andu Lertxundi, Jose Luis Lizundia, Luis Mari Bandrés, Koldo Gorostiaga, Mikel Zalbide, Pedro Migel Etxenike, Jose Ramon Etxebarria, Jazinto Iturbe, Itziar Urretxa, Xabier Mendiguren, Agustin Ozamiz, Olatz Benito del Valle, Miren Azkarate, Ibon Sarasola, Jesus Mari Goñi, Xabier Kintana, Iñaki Azkune, Joseba Agirreazkuenaga, Agustin Azkarate, Carlos Otegi, Martzel Aizpurua, Jesus Mari Txurruka, Kepa Sarasola, Fernando Mijangos, Kepa Altonaga, Baleren Bakaikoa, Mikel Aizpuru, Xabier Isasi... Anton Olariagaren marrazkiak gutxietsi gabe. Eta barka biezate aipatu ez ditudanak, zorionez, asko eta asko direnak.

Halaber, nik ezagutzeko erarik izan ez ditudan hirugarren belaunaldikoak esan daitezkenak. Aurreko guztiak baino gehiago kopuruz eta seguru nago guztiak, bakoitzari dagokion gaian, oso ondo prestatuak.

Bada alor honetan zehaztu beharreko puntu bat. UEUren helburuetako bat irakasleen trebetasuna lantzeko gune bilakatzea izanik, bultzatu egiten zen irakasle askoren parte hartzea, ikuspuntu ekonomikotik kaltegarria izan arren eta zenbait irakasleren gaitasun linguistikoa, prestakuntza akademikoa edota biak eskasak izan. Zenbait kasutan ikasleak izan ziren, irakasle baten begiradapean, ikastaroaren zati bat prestatu zutenak, eta beste irakasle batzuek bete zituzten gelditu ziren hutsuneak.

3.3. Lantaldeak sortzeko esparrua

Donibanen burutu zen lehengo ekitalditik bertatik azpimarratu zen talde lanaren garrantzia. Egin ziren mintegietan eta Donibanen bildutako ikasleen artean sortutako harremanak funtsezkoak izan ziren UEUren arrakasta eta jarraipena ulertzeko. Lanean bakarka ari zen jendea biltzeko aukera eman zutelako, baita urtean zehar garatuko ziren plangintzak osatzeko aukera ere.

Egiaren faboretan esan behar da zientzia-gaiekin lotutakoek azaldu zutela bide honetan heldutasun handiena. Bigarren ekitaldian nabarmendu egin zen lan modu honen emaitza. Zientzia Saila izan zen, denen esanetan, hobekien antolatu zuena bere ikastaroa. Bilboko, Donostiako eta Iparraldeko taldeak urtean zehar bildu eta elkarrekin bikain antolatuz beren lana.

Horrela, bada, Paulo Agirrebaltzategiren eta beste askoren ustez, honako hau izan zen II. UEUren ondoriorik bikainena: «Horrelako lan taldeak sortzea eta finkatzea. Geroak erakutsiko du nolako fruitua dakarren taldekako lan honek, datorren urteko Unibertsitaterako eta euskal kulturaren bizitzarako eta hedakuntzarako».

Zorionez, Paulok eta bestek erakutsitako desio honek izan du segidarik UEUkideen artean eta eman du fruiturik euskal kulturaren bizitzan eta hedakuntzan.

3.4. Testugintza ahalbidetzeko gunea

Unibertsitate baten plangintza seriozki hartu nahi baldin bada, ezinbestekoa da testugintzan aritzea. UEU, beraz, ezin salbuespena izan.

UEUren bosgarren ekitaldian, Iruñean egindako lehenengoan, moldatu zen lehenengo liburua, UEUren historiako *protoliburua* dei daitekena. Matematika gaia eta titulua, dagoeneko historia den multikopiagailu sistemaz egindako ale bakarra; ozta ozta lortu zen V. UEU amaitu zenerako esku artean izatea. Arratziarren taldea, klaseetara piper eginda eta, tematu egin zen zeregin horretan eta bai lortu ere. Ez dakit UEUren artxibategian gordeta dagoen ala ez, baina egin zenetik 36 urtera ikustekoa litzateke haren itxura.

Bizkaiko Bankuak emandako laguntzari esker izan zuen segida testugintzak. Inprimaketa eta azaleztapen aldetik hala moduzkoak, baina bidea irekitzeko ezin baliagarriagoak gertatu ziren banku horren laguntzaz argitaratutako liburuak.

Gerora argitaratuak beste kontu bat dira; UEUren merezimenduzko lorpenetarikoa bat. 351 dira jadanik argitaratuak. Kantitatea hor dago eta UEUkide historikoa batek esaten duenez, kantitate barik zaila da kalitatea izatea.

Alor honetan ezin aipatu gabe utzi UEUk argitaratzen dituen aldizkariak:

UZTARO. 82 zenbaki kaleratu ditu. Aldizkari zientifikoaren estandarretara egokitzeko kalitatearen inguruan ebaluatzaileak ari dira eta batzorde zientifikoaren erabakia dago.

ALDIRI. 10 zenbaki argitaratu dira.

B - AURRERANZKO ERRONKA

Euskal Unibertsitatea sortzeko bide urratzaile izateko asmoz abiatu zen UEU. Abiapuntuan bi eginkizun nagusi lituzke UEUK Joan Mari Torrealdairen esanetan: «Bateko, ingurua integratzen eta potentziatzen duen bilgune bat izan; eta besteko, etorkizuneko unibertsitate-erakundearen oinarriak prestatu».

UEUren hastapenetako urte haietan, Udako Unibertsitatea osagarri ez baizik eta salatari jaiotzen da; bestearen hutsuneak betetzeko ez, baizik eta berria sortzeko eraikia. Oraingo unibertsitate ofizialetik ez baino, unibertsitate berri bat kreetzetik abiatzearen aldekoa dirudi UEUK. Horregaitik, behin eta berriz, nahiz eta manifestutan programetan baino areago izan, eta egintzetan baino gehiago asmotan izan, unibertsitate berri baten oinarri gisa eta oraingoaren alternatiba moduan ulertzen du bere burua Udakoak.

Planteamendu honen irmotasuna garai hartako unibertsitateen errealitateari lotuta ulertu behar dela deritzot, eta ordudanik gauzatu diren aldaketak kontutan hartu beharrekoak. Hauexek aipagarrienak:

EHUn euskararen tratamendua, alor guztietan, dezente hobetu dela esango nuke. NUP sortu da euskararekiko atxekimendu gutxiagorekin. MONDRAGON Unibertsitate pribatua ere sortu da; tamalez, ez dut datu zehatzik baina uste dut euskarak presentzia garrantzitsua izango duela bertan. Elizaren Unibertsitate biak, DEUSTUkoak eta Iruñeako OPUSkoak bere horretan jarraitzen dute. Dakidanez, Deustukoan hobera egin du euskararen presentziak.

Zenbait hipoteka atzematen ditu UEUK Euskal Herrian diharduten unibertsitateetan: eliteen unibertsitatea eta ez ororena izatea, jakintza arloan irakasle eta ikaslearen arteko hierarkiaz aritzea talde lanaren kaltetan, herri unibertsitatea ez izatea herria bere osotasun geografiko, politiko-administratibo, kulturazko eta ekonomiazkoan ulertuta, goitik behera eraikitako unibertsitatea izatea kultur minorien problemak, hizkuntzarena batik bat, aintzakotzat hartu gabe, sistema kapitalistaren euskarri eta organo erreproduzitzaila izatea ...

Hipoteka horiek gainditzeko esparrua izan beharko lukeen eta oraindik, tamalez, egitasmoa den Euskal Unibertsitatea sortze bidean aurrera egiteko, gogotik ari da lanean UEU eta, argi eta garbi, aitortu behar zaizkio egindako ahaleginak eta erdietsitako lorpenak.

Ahalegin eta lorpen horiek zernolako girotan gauzatzuz doazen, goxotasunez, azaldu zituen Eneko Bidegain kazetariak joan den uztailaren 5ean Baionako Eukal Museoan egindako ekitaldian.

Katebegi gisa definitu zuen Udako Euskal Unibertsitatea: «Hainbat katebegiko kate batek lotzen gaitu, eta belaunaldiak, eskuz esku goaz aitzina, euskarari, euskal ikasketei eta euskarazko jakintza arloari etenik eman gabe».

UEU euskarak «gizarte honetako arlo guztietarako balio duela erakusteko adibide garbia» dela ere azaldu zuen. «UEU euskal komunitate zientifikoaren eta euskal unibertsitate munduaren topagune atsegina da» gaineratu zuen. «Hor elkartzeko gara ikasleak, irakasleak, arlo batekoak, bestekoak, elkar ezagutzen

dugu, jakintzak elkartrukatzen ditugu, giro onean, zientzia buruan eta euskara bihotzean».

Hala ere, Euskal Unibertsitatea jomugatzat dela, UEUK egin duen eta egiten ari den bidean Euskal Herriko Unibertsitatea hor dagoela saihetsezineko errealitatea da. Zer-nolakoa izan beharko luke, beraz, bien arteko erlazioa? Bateragarriak, bateraezinak, bateratu beharrekoak... dira?

Ikuspuntu honetaz UEUri buruz egindako gogoetetan, denak ala ia denak funtsean bat etorri arren, badira zenbait ñabardura eta definizio, bat edo beste ez, behar bada, guztiz zehatzak.

Horrela, aipatu izan da UEU Euskal Herriko Unibertsitatearen alternatiba gisa. Helmugako erronka litzateke hori, baina uste dut, tamalez, gaurkoz ez daukala horrenbesterako entitaterik. Unibertsitate paralelo izatea ere esan izan da. Paralelotasuna bata bestearengandik bide kontrajarriak eta desberdinak egitea ulertzen baldin bada, ez dut uste bide hori ez egokia denik, ez UEUK hartu duena denik.

Badira, nire ustez, beste zenbait ikuspuntu bien arteko erlazioa modu egokiagoan azaltzen dutenak. Bide horretatik dijoazke UEU «bide urratzaile», «azpiegitura sortzaile», «hazitegi», «osagarri», «topaleku»... modura definitzen dutenak.

Behar bada «elkarbilaketa» gune izatea litzateke alor honetan zehaztapenik egokiena eta aberasgarriena. Honela azaltzen du Joseba Intxaustik, ohi duen bu-ruargitasunaz, puntu hau: «Udako Euskal Unibertsitatea eta Unibertsitate ofiziala, elkarbilaketa beteruntz abiatu-rik doaz, noizbait puntu bakartu batean elkar topatzeko, bere elementu pertsonal eta bestelako guztiak gogotan izanik, euskal gizarte-ari erantzun bat emateko, eta denon artean euskal Unibertsitatea izenda-tzen dugun hori sortzeko».

Uste dut bide bertsua planteatzen duela Andoni Olariagak ere hastera doan ikasturterako graduondokoez aritzean. «UEUK sustatu eta EHUK eskainiko dituen lau graduondoko berriak euskal unibertsitaterako trantsizio bidean ulertu behar dira», Olariagaren ustez.

Helburu horiek erdiesteko ahaleginetan ari da UEU. Ildo honetatik, behin baino gehiagotan aipatu eta eskatu izan da, UEUri buruzko iritzi-artikuluetan eta, urte osora hedatu beharko lukeela bere eskaintza akademikoa. Zorionez, bide luzea egin da horretan. Pozgarria eta esperantzagarria da Donibaneko Lohizuneko 1973ko lehengo egitarauan zortzi sailetan banatuta eskaini ziren 39 hitzaldi haiek zer-nolako segida izan duten. Eta zer esan, han bildu ziren 90 lagun aintzindari haiek izan dituzten jarraitzaile eta ondorengoetaz!

Gogo eta asmo honekin, bada, azken urteetan, hiru bidetik gauzatu du UEUK bere eskaintza: Eskaintza propioz (EP) emandako Ikastaroak, Ikastaro Hitzartuak (HITZARTUAK) eta Unibertsitate mailako Prestaketa (UMP) bidean emandakoak. Udaberrian, udan eta udazkenean barreiaturik eman ere.

Eskaintza propio bezala, 2010-11 ikasturtean zehar, 48 ikastaro eman zituen: 26 udako ikastaro, 15 Markeskoan (udazkenean, udaberrian eta udan) 4 Iruñean (udan) eta 3 Baionan (udan); 48 ikastaro horietatik 2 *online* izan ziren. Ikastaro hauei buruz, azpimarratzekoa da, ikastaroak gehitzeaz gain, toki batean izatetik —Donibane Lohizune, Uztaritze, Iruñea— toki gehiagotara zabaldu duela UEUK bere presentzia . Bereziki garrantzitsua Iruñeako eta Baionako presentzia. 98 irakasle eta 583 ikasle aritu ziren Ikastaro horietan. UEUK bere langintza leku ezberdinetan —hemen, Markeskoan, Iruñean, Baionan...— burutzean, unibertsitate *nazionalaren* ildo zaintzen du, ahal duen heinean.

UEUren Ikastetxe Nagusiko 2012ko udazkeneko eskaintza ere aurkeztu du dagoeneko UEUK: 15 ikastaro eskainiko ditu Eibarren eta Iruñean.

2010-11 ikasturtean emandako Ikastaro Hitzartuei dagokienez, 38 ikastaro burutu ziren, horietatik 17 on line. 39 irakasle eta 645 ikasle aritu ziren Ikastaro hauetan.

Ikastaro hauek direla eta, oso kontutan hartzekoa zenbat erakunde eta ekime-
nekin izan dituen harremanak eta elkarlana UEUK: Eusko Jaurlaritza, Haur
Eskolak, Kristau Eskola, Lanbide Heziketako Ikastetxeak, Seaska, Sare Pribatuko
Eskolak, Euskal Irratiak, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Irakasleei laguntzeko
Zentroa, Euskararen irakaskuntzarako baliabide Zentroa. Azpimarratzekoa, bere
egitarauak prestatu eta eskaintzean, UEUK beste zenbait erakunde eta ekime-
nekin izaten dituen lankidetzak eta harremanen kopurua. Unibertsitate *herritarraren*
arrastoa.

Unibertsitate mailako Prestaketari (UMP) dagokionez, 2 jardunaldi burutu ziren
270 partaideren parte hartzeaz eta 4 graduondokotan parte izan zuen UEUK.

2012-13 ikasturtean 3 graduondoko berri eskainiko ditu UEUK.

Gaur egun ezinbestekoa den alorrean ere buru belarri ari da UEU, Informazio
eta Komunikazio Teknologian (IKT) hain zuzen.

Hiru dira datu-baseak: Tesiker, Softkat eta Inguma. Arlo akademikoan Ulibarri
eta E-Irakaskuntza ditu, Argitalpengintzan Katalogoa, Buruxkak eta Uztaro. com
eta Komunikazioan UEU.org eta Unibertsitatea.net

Lan guzti hau, militantzia eredugarriaz eta, lehen urteetan bederen, arlo
akademikoa eta arlo ludikoa uztartzeak sortu ohi zuen giro alaitsuan burutu arren,
nekagarri —ezinezko ez esatearren— gertatzen da militantzia hutsez eta
nolabaiteko euskarririk gabe egiteko; eskaintza akademikoa hedatzeak eta horrek
eskatzen duen administrazio-kudeaketari erantzuteko. Horregatik aspalditik
planteatu izan da UEUn ekimen eta langintza honen nolabaiteko erakundetzea.

Jabego Intelektualaren Erregistroan erregistratuta daude *Udako Euskal
Unibertsitatea* eta *Euskal Unibertsitatea* izendapenak.

1978. urtean bertan UEU EHU integratzea proposatu zuen *Zeruko Argia*
astekariko lankide batek. Ideia horrek ez zuen arrakastarik izan, baina 1981etik
aurrera, bereziki, barne-etzabaida ugari sortu zituen UEUren barruan.

1981ko urte hasieran, Goio Monreal EHUko errektore hautatu izateak bi erakundeen arteko lankidetzaren aukera berrindartu zuen. UEU unibertsitate ofizialaren baitako erakunde autonomo edo institutu bihurtzea izan zitekeen UEUren zuzendaritzaren arabera lankidetzarako formula bat eta Gurutz Jauregi eskatu zitzaion formula hori zehazteko txosten juridikoa; momentuz, talde errektoralarekin elkarren arteko harremanen «filosofiaz» eztabaidetzea erabaki zen.

1981eko abenduan bildu ziren UEUren ordezkariak (Martin Orbe, Jesus Mari Txurruka eta Jose Ramon Etxebarria) eta EHUrenak (Euskara Kabineteko Xabier Kintana eta Yolanda Makua). UEUko kideek hiru eskakizun zehatz egin zituzten. Lehenengoa, «nolabaiteko babes legala» eta bereziki, EHUko irakasleek UEUn egindako lana EHUkoa izan balitz bezala onartzea eta horren arabera ordaintzea irakasle horiei. Bigarrena, UEUren idazkaritzako bulegoa EHUK uztea; argitalpenetarako laguntza ematea hirugarrena. EHUK ez zuen erantzunik prestatu eta ez ziren gehiago bildu bi erakundeen ordezkariak luzaroan.

1982. urtean EHUK Donostiako Udako Ikastaroak antolatzeak gaiztotu egin zituen UEUren eta EHUren arteko harremanak. Ikastaro haiek 350 ikasle eta 60 irakasle bildu zituzten eta Gipuzkoako Diputazioaren 6 milioiko diru-laguntza jaso zuten. UEUK, aldiz, 467 lagun bildu zituen Larraonako Ikastaroetan eta diru-laguntzak, guztira, ez ziren 4 milioira heldu.

1982. urtean ez zen harremanik izan bi erakundeen artean. Hurrengo urteko udaberrian, kontua berpiztu egin zen, *Argia* astekariak Goio Monreali egindako elkarrizketa bat zela medio, baina ez zen aurrerapausurik eman. Uztailean, Pedro Migel Etxenike, Hezkuntza eta Kultura zelarik, berarekin eta Paco Garmendiarekin bildu ziren Martin Orbe, Baleren Bakaikoa, Ander Basaldua, Luis Mari Bandres, Txillardeggi, Jazinto Iturbe eta Jose Ramon Etxebarria. Bi izan ziren aztertutako gaiak, UEUren definizioa eta UEUren finantziarioa. Lehenengo puntuari dagokionez, Unibertsitate guztiek duten ESKOLA BEREZIA edo horrelako zerbait bilakatuz joatea eta lan monografikoak lantzeko bilgune bilatzea proposatu zuen Etxenikek. Finantziarioari dagokionez, Kultura Saitetik diru-laguntzak jasotzea errazago ikusten zuen. Ikasleen matrikulei laguntzeko diru-laguntza eman zuen hurrengo ikasturtean Kultura Sailak. Dena dela, hurbiltzea bai, baina desirako helburua lortu gabe amaitu ziren harremanak.

1981etik 1983ra bitartean, UEU EHU integratzeko ahaleginak porrot egin ondoren, beste bide bat jorratu zen, UEU instituzionalizatzeko eta diru-laguntzak ziurtatzeko: EHUren euskarazko udako ikastaroen antolatzaile izatea. Aukera hori ez zuen UEUK baztertzen, hiru baldintza betez gero: UEUK autonomia minimoa izatea, ikastaroak euskaraz izatea eta ikasleei aurrez inongo titulurik ez eskatzea.

Lankidetzarako lehengo proposamenaren arabera, UEUK Donostiako Udako Ikastaroen lerro euskalduna prestatuko zuen. UEUren Batzorde Iraunkorrek onartezintzat hartu zuen proposamena, Iruñeko ikastaroak mantendu ezean.

Bide malkartsua izan zen UEU eta Udako Ikastaroen arteko elkarrizketena. Ignacio Maiza, Baleren Bakaikoa eta Luis Mari Bandres dokumentu bat adostu zuten, 1984ko maiatzean, Monreali aurkezteko. Agiri oso orokorra. UEU eta Udako Ikastaroak era koordinatuan eta osagarrian arituko zirela baino ez zuen esaten. Ez zuen Errektoretzaren onespelik lortu.

Hilabete geroago bildu zen Baleren Bakaikoa, Monreal eta Maizarekin. Monrealek zera adierazi zion UEUko zuzendariari, zaila iruditzen zitzaioela akordioa. UEUko irakasle gehienak EHUkoak zirelako. Erantzuna Euskara Batzordean emango zuela. Batzordea maiatzaren 9an batu zen eta bertan bi erakundeen arteko akordioaren ateak itxi zituen Monrealek, aurreko hilabeteetako argudio berdinak aipatuz.

EHUrekin eta Donostiako Udako Ikastaroekin izandako harremanak akordiorik gabe bukatu eta gero, batzar berezia egin zuen UEUk Aralarren, 1984ko udazkenean, eta bertan bide propioa eta autonomia jarraitzea erabaki zuen.

Bide horretatik Jose Migel Barandiaran proiektua sortu zen, 1998. urtean. Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak, Labayru Ikastegia, Udako Euskal Unibertsitatea, Unizer eta Zenbat Gara entitateek bultzatutako Euskal Unibertsitatearen proiektua izan zen. Oso oker ez banago proiektu hutsean gelditu zen.

Euskal Unibertsitatearen Sustapen Taldea sortu zen, 2008. urtean. UEUk, Nazio Etxabaida Guneak eta Kontseiluak sinatu zuten hitzarmenaren arabera, eragileen helburu nagusia Euskal Unibertsitatearen aldeko Fundazioa sortzea zen.

Bide horretatik, Euskal Unibertsitatea sortzeko helburuaz Euskal Unibertsitatearen aldeko Fundazioa sortzea erabaki zuten, 2008ko ekainean, euskalgintzako zortzi eragilek: Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak (AEK), Euskarazko Komunikazio Taldeak (EKT), Elkar Fundazioak, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak (EHK), Ipar Hegoa Fundazioak, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak, Nazio Etxabaida Guneak eta Udako Euskal Unibertsitateak (UEU).

Fundazio honen eskariz, Euskal Unibertsitatea sortzeko behar den Proiektu Akademikoa landu zuen UEUk, 2009. urtean. Ikuspegi funtzionalari erantzuteko asmoz, Proiektu Akademikoa zati bitan banatu zen: Hezkuntza Proiektua eta Curriculum Proiektua.

2010. urtean Fundazioa erregistratzeko oztupoak izan ziren arren, Euskal Unibertsitatearen aldeko Fundazioak biziraupenaren aldeko apustua egin zuen, bere dinamikarekin jarraituz eta UEUrekin batera Euskal Unibertsitatearen bidean zenbait ekimen bultzatuz.

UEUk burutu duen lan guztia gorabehera eta, hastapenetatik gaur arte, pluraltasun kontrastatuz jardun izan duen arren, nago, erakunde askoren susmopean eta beste askoren eta jendarteko sektore handi baten gutxiespenaz aritu behar izan duela.

Erakunde ofizial gehienei dagokienez, herri mugimenduen aldetik egiten zitzaizkien salaketa eta eskaerei gorrarena eginda, batez ere euskara hutsean aritzeko hautua egin dutenei, leize sakona bilakatzen da, maiz, haien eta herri dinamikatik sortutako ekimenen artean gertatutako urruntzea. Ez dira jabetzen hizkuntza baten sakontasun eta garrantziaz eta, beraz, ez dira gai euskarari izaera instrumentala baino gehigo aitortzeko.

Bestalde, Euskal Herriaren zirrikitu guztietara iristen den giro garratz eta mikaztuak eragin zuzena du euskal jendartearen euskal kulturaren eta euskararen

problematika ulertzeko orduan. Izan ere, «herri iritzia» deritzon horren eragin ikustezin baina askotarikoaren itzala nonnahi zabaltzen da eta ondorioz askok eta askok, beraiei ez joakeen kontu modura hartzen dute, euskalgintzaren afera, aurkako jarrera hartzen ez dutenean.

Giro horretan eta edozein neurri eta erabaki antisozial hartzeko jokabidea justifikatzeko aitzakia aproposa bilakatu den krisialdiaren barnean iritsi da Eusko Jaurlaritzak UEUri laguntza izenduna ukatzeko erabakia. Tamalez, ukapen ala murrizketak ez ditu UEUK soilik pairatu. Euskalgintzako beste alor askotara ere iritsi dira antzerako erabakiak, euskal hedabideetara, kasurako.

Ingurumari horretan eta erabaki guneetatik kanpo, berez zaila den euskalgintzaren ibilbidea, are zailago gertatzen da. UEUrena ere bai, jakina. Beraz, esaera zaharrak dienez «*Sasi guziyen gañetik, odei guziyen azpitik*» jardun beharko dute bai UEUK eta bai euskalgintzako beste zenbait ekimenek, denak ez esatearren.

Unibertsitate ofiziala ez da Euskal Unibertsitate bilakatuko ez bere kasa ez dekretuz eta, beraz, bai UEUK eta bai beste zenbait ekimenek lorpen hori ahalbidetuko duten ahalegin eta ekimenetan jarraitu beharko dute.

Bi dira, nire ustez, Euskal Unibertsitatea, bereziki, ala erraztu ala eragotziko duten errealitate sozial nagusiak: euskal jendartearen euskararen ezartzea eta euskalgintzaren aldeko baldintza politikoak.

Euskararen ezarpenari dagokionez, badugu oraindik zer egin. XX. mendearen hasieran Euskal Autonomi Erkidegoan euskaldunak ziren % 80, eta horietatik erdiak euskaldun elebakarrak. Frankismoa bukatu zenerako, aldiz, % 23 ginen euskaldunak eta euskaldun elebakarak desagertuak zeuden, eta soilik gaztelaniaz egiten zutenak % 72 inguru ziren.

Bestalde, azkeneko azterketen arabera, euskararen normalizazioan geldotze zantzuak sumatzen dira eta galtze joeraren abiapuntu batean egon gaitezke. Aurrera ez egitea atzera egitea da.

Nabarmena da euskarak noraino sufritu duen, baina ez bakarrik frankismo garaian, baita aurretik eta ondoren ere. Horregatik, Euskal Herriaren berezko hizkuntza euskara izanik, euskararen aldeko diskriminazio positiboaren bidezko laguntza konpentsatzaileak eskatzea ez da ezelango gehikeriarik.

Errealitate politikoari dagokionez, ezin dugu ahaztu minoria garen egoeratik eskatzen dugula Euskal Unibertsitatea. Zor zaiguna hala ere. Baina oraingoz, lehen urratsak ematen ari gara; apalak baina geroz eta tinkoagoak. Urrats horien bidez, Euskal Unibertsitatearen premia aldarrikatzen da azken urte hauetan, guraria agertzen, egin daitekela frogatzen. Baina, azken finean, Euskal Unibertsitatearen soluzioa ez da kultur esparrukoa, ez eta ekonomi arlokoa, ez eta arazo tekniko bat. Europako herri txiki eta minorizatuen etorkizun politikoak erabakiko du hauen unibertsitatearena. Horixe Joan Mari Torrealdaireren iritzia.

Euskal Herria euskalduntzeko dinamikak jarraituko duen ziurtasunaz eta baldintza politikoak aldekoagoak izango diren esperantzaz, esan dugunez, «*sasi guziyen gañetik eta odei guziyen azpitik* izanik ere, UEUK ekin behar dio eta ekingo dio bere langintzari.

Hitzaldi honi falta zaizkion freskotasuna eta indarra Lore Erriondok, urriaren 14 honetan, argitaratutako artikuluak damaie: Honatx Loreren ekarpena: «Hori dugu eredua: erasoak saihestu eta erantzuten indarra galdu beharrean, indar hori erabiltzea gurea sortzen, indartzen, eraldatzen, eraikitzen ... Gai gara, nor gara, ilusioa dugu, zer nahi/behar dugun badakigu, elkarri lotu, indarrak bildu, eta egin dezagun bidea. Eta horrela ekiten diogu ikasturte honetan ikasturte berriari, beste behin, indarberriturik, elkarlanean, gogobetez, karpetak bete proiektu, ikastaro, hitzaldi, liburu, artikulu, titulazio... On dagigula guztioi!»

